

AGUR!!

Zueri, Nazario, Alberto Mari, Gillermo, Narziso
ta Ameriketara zoaren guztioi...

*Ikusi arte!, amaika bidar
esan ta entzun doguna,
orain artean ez nekin zer zan
esakera orren guna:*

*Begiak itxiz baztartzan dogu
maitasun gozo biguna,
odoleko ta erriarentzat
ain berezkoa doguna.*

*Naiz erri-miñak biotz gexo au
kili-kilika ximurtu,
Jainkoagatik beti aurrera:
Malkoak lenen legortu,
ain ezti eta gozoak diran
biotz-kateak apurtu,
eta ondoren guraso, erri,
ezagun danak agurtu!!!*

*Gero lastertxu aurkituko naz
ezezagunen artean,
umetatikan burutamenez
ikusi dotan lurrean,
dlez trikian aldara aurrean
Jesus'ekin bakarrean,
andik kanpora indargarriztat
kurutzea paparrean.*

*Guraso kutun, anai arrebak
itxasoz beste aldean,
Euskalerrian biziko dira
menditxoan magalean,
salo ta landaz inguratuta
baserri zabal batean..
oroigarriztat amak emonda
Euskerea nik aldean!*

*Parroki zabal, amaibakoan
ibilbidea potiñez,
edo sasi ta sastraka ziar
eskuz bidea egiñez.
Jota dakustaz indio oneik
siniskerien gorriñez;
erakutsiko dautset dotriña
izardi eta samiñez.*

*Matrallan bera sentitzen nago
malko lodien bercoa...
Barrero diñot euskaldun batek
lenago esandakoa:*

*«Agur Euskalerria
zugandik ba-noa,
maite ba zaitut bere
maitago Jainkoa»*

Damaso, Pasiotarra.